



Salbatore Mitxelena Kooperatibako Estatutuak

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA.-

IZENA, HELBURUA, HELBIDEA ETA IRAUPENA

1. artikulua. Izena
2. artikulua. Helburu soziala
3. artikulua. Helbide soziala
4. artikulua. Iraupena eta lurralde eremua

II. KAPITULUA.

BAZKIDEAK

5. artikulua. Bazkide izan daitezkeen pertsonak
6. artikulua. Onartzeko baldintzak
7. artikulua. Onarpenari buruzko erabakia
8. artikulua. Onarpenaren prozedura eta argitaratzea
9. artikulua. Helegiteak eta onarpenari buruzko akordioak bete beharra
10. artikulua. Bazkideen betebeharrak
11. artikulua. Bazkideen eskubideak
12. artikulua. Informazio eskubidea
13. artikulua. Bazkideak baja ematea

III. KAPITULUA

DIZIPLINA SOZIALAREN ARAUA

14. artikulua. BAZKIDEEN HUTSEGITE MOTAK
15. artikulua.- Hutsegite sozialei dagozkien zigorrak
16. artikulua. Zehapen prozedurak
17. artikulua. Kanporatzea

IV. KAPITULUA LANEKO BAZKIDEEN GIZARTE SEGURANTZAKO ERREGIMENA

18. artikulua. Laneko bazkideen Gizarte Segurantzako erregimenaren gaineko aukera.

V. KAPITULUA KOOPERATIBAKO ORGANO SOZIALAK

19. artikulua. Organo sozialak

LEHENENGO ATALA. BATZAR OROKORRA

20. artikulua. Batzar Orokorra

21. artikulua. Batzar Nagusirako deialdia

22. artikulua. Batzar Nagusiaren funtzionamendua

23. artikulua. Bozkatzeko eskubidea

24. artikulua. Gehiengoak

BIGARREN ATALA KOOPERATIBAKO ONARPENA ETA ORDEZKARITZA

25. artikulua. Administratzaileak.

26. artikulua. Kontseilu Errektorearen osaera, hautatzea, kargu uzteak eta bete gabeko karguak.

27. artikulua. Kontseilu Errektorearen funtzionamendua

HIRUGARREN ATALA ZAINZA BATZORDEA

28. artikulua. Zaintza Batzordea

VI. KAPITULUA KOOPERATIBAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA

29. artikulua. Kapital Soziala

30. artikulua. Hasierako derrigorrezko ekarpenak eta sarrera kuotak

31. artikulua. Borondatezko ekarpenak

32. artikulua. Ekarpenen interesak eta eguneratzea

33. artikulua. Ekarpenak eskualdatzea

34. artikulua. Ekarpenak itzultzea

35. artikulua. Soberakin eskuragarrien banaketa.

36. artikulua. Galerak egoztea

VII. KAPITULUA. ENPRESAKO LIBURUAK ETA KONTULARITZA

37. artikulua. Dokumentazio soziala

VIII. KAPITULUA DESEGITEA

38. artikulua. DESEGITEA

I. KAPITULUA.-IZENA, HELBURUA, HELBIDEA ETA IRAUPENA

1. artikulua. Izena

SALBATORE MITXELENA, KOOP. E. izenarekin, Zarautzen IKASLEEN GURASOEN IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA eratu da, Euskadiko Kooperatibei buruz Eusko Legebiltzarrak onetsitako Legearen printzipioen eta xedapenen arabera, eta indarrean dauden gainerako lege aginduei eta Estatutu hauei loturik.

2. artikulua. Helburu soziala

Kooperatiba honen helburua bazkideen seme-alaben eta senideen irakaskuntza eta hezkuntza sustatzea eta horri arreta ematea da, euskaraz, udalerriko beharren arabera mailetan eta modalitateetan; horretarako, erakunde eta elkarte pribatuekin eta pribatuekin batera lan egingo du, aukeren berdintasun printzipioa aplikatze aldera, kulturaren eta arte, teknika eta kirol alorreko formazioaren onuretan parte hartuz. Kooperatibak ez du irabazi asmorik izango.

3. artikulua. Egoitza soziala

Egoitza soziala Zarautzen, Maria Etxe-Txikin, zenbakirik gabe, dago kokatuta eta udalerrri baitan egoitza aldatzea Kontseilu Errektoreak erabaki ahalko du, Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatuko den eskritura publiko eginez.

4. artikulua. Iraupena eta lurralde eremua

Bat.- Kooperatiba honek ez du iraupen zehatzik izango.

Bi.- Kooperatiba jardueraren lurralde eremu nagusia Zarautz udalerria izango da.

II. KAPITULUA BAZKIDEAK

5. artikulua. Bazkide izan daitezkeen pertsonak

Bat.- Bazkide onuradun zuzenak:

- a) Gurasoak edo familiako buruak, ordezkariak edo tutoreak, kooperatiba honetan seme-alabak edo tutoretzapekoak izan dituztenean, dituztenean edo izan ditzaketenean.

Bazkide izaera familia bakoitzeko ordezkari batek bakarrik izango du, Kooperatibako irakaskuntzako zerbitzuak erabiltzen dituzten seme-alaben edo senideen kopurua edozein delarik ere.

- b) Adin nagusiko ikasleak edo emantzipatuak.

Bigarren kasu horretan, ikasle horien senideek bazkide izaera izan ahalko dute, kooperatibizatutako jardueraren erabilerari dagokionez, beste seme-alaba edo senide batzuen mesedetan.

Bi.- Lan bazkideak:

Kooperatiban beren lana garatzeko eta egiteko gaitasuna duten pertsonak eta Estatutu hauek izenpetzerakoan bere egiten dituzten eskubideak eta betebeharrak ezagutzen dituztenak eta fideltasunez eta eragingarritasunez horiek betetzeko konpromisoa hartzen dutenak, beren lan pertsonala eskainiz.

Hiru.- Bazkide laguntzaileak:

Pertsona fisikoak edo juridikoak, beren lana zuzenean eman ezin dutenak eta irakaskuntzako jardueraz balia ezin daitezkeenak, helburu soziala lortzen lagun dezaketenak eta gainerako bazkideekin interes komuna berma dezaketenak.

Bereziki, eta artikulua honetako bigarren atalean xedatutakoari kalterik eragin gabe, zentroko irakasle ez diren langileak eta irakasleak mota horretako bazkide gisa Kooperatiban sartu ahalko dira, Estatutu hauek eta Legeak horientzat aurrez ikusitako erregimenaren arabera.

Lau.- Bazkide ez aktiboak eta ez erabiltzaileak:

Bazkide laguntzaile izaera lortzeko aukeraz gain, aurreko atalean aurrez ikusitako baldintzak betez gero:

- a) Bazkide ez erabiltzaileak izango dira edozein arrazoi justifikatu dela-eta, Kooperatiban hamar urte baino gehiagoko antzinatasuna duten onuradun zuzenak, kooperatibizatutako jarduera erabiltzeari uzten diotenean.

- b) Bazkide ez aktiboak izateko, gutxienez, hamar urteko antzinasuna beharko dute, Kooperatiban behin betiko lan egiteari uzten dioten lan bazkideek, justifikatutako edozein arrazoigatik.

Bi kasu horietan, Kontseilu Errektoreak baimendu beharko du hori, eta kooperatibako organo sozialeko kide izateko eskubiderik ez dute izango.

Bost.- Eskubideen mugaketa zenbait bazkide motarentzat:

Bazkide laguntzaileek ezingo dute boto sozialen heren bat baino gehiago izan Batzar Nagusian edo Kontseilu Errektorean.

Bazkide ez aktiboek eta erabiltzaile ez direnek ezingo dute organo sozialen bateko kide izan, Batzar Nagusian izan ezik; azken horretan, boto sozial guztien bosten bat baino gehiago ezin izango dute eduki.

Bazkide laguntzaileen, ez aktiboen eta erabiltzaile ez direnena boto kopurua ezin izango da boto sozialen erdira iritsi.

6. artikulua. Onartzeko baldintzak

Bat.- Bazkide izateko honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Pertsona fisikoen kasuan, adinez nagusia izatea edo emantzipatuta egotea, jarduteko gaitasuna mugatuta izan gabe, batez ere lan bazkideek laneko kontratu bat formalizatzeko kasuan.

Entitateek berezko nortasun juridikoa izan beharko dute.

- b) Lan bazkideek hiru hilabeteko iraupena izango duen probaldia gainditu beharko dute Ikasturte garaian probaldi hori osatu ezingo balitz, Kontseilu Errektoreak luzatzeko eskubidea izango luke epe hori hurrengo ikasturtean osatu arte, egoki iritiz gero.

Probaldi horretan, gainerako bazkideen eskubide eta betebeharrak izango dituzte, Legearen 100. artikuluan aurrez ikusitako berezitasunekin, aplikagarriak direnean, Kooperatiba honen ezaugarri zehatzak kontuan izanda.

7. artikulua. Onartzeari buruzko erabakiak

Bat.- Bazkideak onartzeko erabakia Kontseilu Errektoreak hartuko du eta arrazoi alternatiboan, bidezkoan edo bateratuan oinarrituta soilik mugatu ahalko du.

- a) Onartzeko eskatutako baldintza objektiboak bete ez direnean.
- b) Kooperatibaren antolamendu eta funtzionamendurako objektiboki bazkide berriak behar direnean.

- c) Bazkide izateko egokitasunik ez dagoenean, probalditik edo Kontseilu Errektoreak egindako oharretatik ateratako txosten negatiboak oinarri gisa hartuta. Kooperatibako zerbitzuak lortzeko edo eskaintzeko gaitasunik eza hartuko da kontuan bereziki.

Edonola ere, ondorengo arrazoiak ez dira onartzeko kausa ukatzaileak izango: ideia politikoak, sindikalak edo erlijiosoak, edo eskaria egin duenaren arraza, hizkuntza, sexua edo egoera zibila.

Bi.- Epemugarik gabeko kontratua izan eta kooperatiban urtebete baino gehiagoko antzintasuna duen langilea lan bazkide legez onartu beharko da, probaldirik gabe, eskubide horretaz baliatzerik izan zuenetik hasi, eta urtebeteko epean horrela eskatzen badu.

8. artikulua.- Onarpenaren prozedura eta argitaratzea

Bat.- Onarpen eskaera idatziz egingo zaie administratzaileei; azken horrek eskaria hartu eta bi hilabeteko epean erabaki beharko du.

Kontseilu Errektoreak eskatzaileari jakinarazi beharko dio bere erabakia; erabakiak arrazoiren batean oinarrituta egon beharko du eta erabakitzeko ezarritako epean jakinarazi eta, aldi berean, zentroko iragarki taulan argitaratu beharko du.

Bi.- Epe hori igarota, erabaki zehatzik ez baldin badago, onarpen eskaria onetsizat joko da, kasu horretan, dagozkion probaldiak hasiz.

9. artikulua.- Helegiteak eta onarpenari buruzko akordioak bete beharra

Bat.- Erabakia ukatzailea bada, eskatzaileak Batzar Orokorrean errekurritu ahal izango du horren berri izan eta hogeit hamar egun igaro baino lehen.

Errekurtsoa, ordea, Kontseilu Errektorearen aurrean aurkeztu beharko da, idazkariari zuzenduta; hartu agiridun posta ziurtatua edo beste baliabideren bat erabili ahalko da, errekurtsioa aurkeztu den data eta hori jaso izana jasota gera dadin.

Errekurtsoa Batzar Orokorrak erabaki beharko du une horretatik hasita egindako lehen bileran, gai zerrendan sartzeko nahikoa denbora baldin badago, bozketa sekretu bidez, interesdunak entzun ondoren.

Bi.- Onarpenen oniritzizko akordioei bide beretik egin ahalko zaie aurka, erabakia argitaratu eta 20 eguneko epean, gutxienez boto sozialaren %20 ordezkatzan duten bazkideek hala eskatuta.

Erabakia argitaratu ez bada edo horren datarik agertuko ez balitz, epea onarpena eskatu duenari jakinarazitako unetik hasiko da.

Hiru.- Kontseilu Errektorearen akordioa betearazlea izango da errekurtsioa jartzeko epea amaitu den unetik, horretarako ahalmena duen inork eskubide hori erabili ez badu edo Batzarrak dagokion errekurtsioa ebatzi duen unetik.

Betebehar eta eskubide sozialek eragina izango dute onarpen akordioa betearazlea den egunetik, baina akordio horren aurka egingo balitz, akordioa etenda geratuko litzateke, eskuduntza duen organoak ebazpena erabaki arte.

10. artikulua.- Bazkideen betebeharrak

Ondorengoak dira bazkideen betebeharrak:

- a) Batzar Orokorretara eta deituak diren gainerako organoetako batzarretara joatea.
- b) Organo sozialek baliotasunez hartutako erabakiak betetzea. Bazkideak akordioaren bat baliogabetzat joko balu, bete egin beharko litzateke, nabarmen legez kontrakoa bada edo konponezina edo handia den kalteren bat edo galeraren bat sortzeko aukera egonez gero salbu, bere eskura egon daitezkeen aurka egiteko mekanismoak eta Gobernuko organoen edo Kooperatibaren aurka erabil ditzakeen konponketako jarduerak utzi gabe.
- c) Kooperatibaren helburua osatzen duten jardueretan parte hartzea; administratzaileek liberatu egin ahalko dute horretarako.

Horren inguruan, bazkide onuradun zuzenek irakaskuntzako zerbitzuak erabili beharko dituzte beren seme-alaben edo senideen mesedetan eta lan bazkideek beren lana Kooperatibari soilik eskaini beharko diote, Kontseilu Errektoreak modu arrazoituan laneko zerbitzuak beste erakunde batean eskaintzeko baimena ematen badie izan ezik, horrek Kooperatibaren prestazioan eragozte ez baldin badu edo horren kalterik eragiten ez badu behintzat.

- d) Kooperatibaren berezko helburuekin jarduera kompetitiborik ez egitea, eta egiten dituenekin lanik ez egitea, Kontseilu Errektoreak espresuki baimena ematen duenean izan ezik.
- e) Karguren baterako izendatu badute, hori onartzea, ez onartzeko arrazoi egokia dagoen kasuetan izan ezik. Edonola ere, bidezko arrazoia izango da Kooperatiban kargu sozialak izatearen aitzakia, agintaldi osoa beteta, kargu berrirako aukeratu eta aurreko bi urteetan.
- f) Bazkide izateak dakartzan betebehar ekonomikoak betetzea.
- g) Kooperatiban giro sozial eta adeitasunezko elkarbizitza sortzen laguntzea.
- h) Legezko arautik eta Estatutu hauetatik zein akordio sozialetatik eratorritako gainerako guztiak.

11. artikulua.- Bazkideen eskubideak

Bazkideek ondorengoetarako eskubidea dute:

- a) Kooperatibako organoen karguetarako kideak aukeratzeko eta aukeratuak izateko eskubidea.
- b) Batzar Orokorrean edo batzarkide diren gainerako organoetan hartuko diren akordio guztietan proposamenak egiteko eta hitz eginez eta botoa emanez parte hartzekoa.
- c) Hurrengo artikuluan eta Legean ezarritakoa betez informazioa eskatzekoa.
- d) Baja hartzen badute edo Kooperatiba desegiten bada, beren ekarpena berreskuratzekoa.
- e) Lan bazkideek beren lana garatzeko eta horregatik dagozkien lansari aurrerakinak jasotzekoa.
- f) Lan bazkideek birgaitze profesionala lortzekoa, batez ere garapenean sortutako kaltea handiagoa bada, kargu sozialen bat duelako, obligazio horiek lehentasuna izan behar baitute laneko prestazioaren aurrean gaindiezina den bateraezintasun osoaren edo partzialaren kasuan.
- g) Irakaskuntzako jardueraren onura lortzeko eta, ahal den neurrian, beste jarduera osagarri batzuen, beren seme-alaben edo babespekoen kasuan zuzenean, mendekotasuneko edozein harreman dutenean edo abegituta daudenean.
- h) Estatutu hauen baitako barne araudi juridikoan aldaketak sustatzekoa.
- i) Estatutu hauetatik eta gainerako legezko arauetatik, edo akordio sozialetatik erator daitezkeen gainerakoak.

12. artikulua. Informazio eskubidea

Bat.- Kooperatiben Legak horren inguruan xeda dezakeena albo batera utzi gabe, bazkideek Kooperatibaren martxa ezagutzeko betebeharra eta eskubidea dute, bertan duten egoeraz eta Kooperatibako barne funtzionamenduaren beste alor batzuez gain.

Horrenbestez, bazkideek ondorengo eskubideak dituzte:

- a) Estatutu Sozialen eta Barne Araudiaren kopia bat eskatzekoa.
- b) Bazkideen erregistro liburua eta Batzar Orokorren akta liburua aztertzekoa.
- c) Batzar Orokorrean adostutako akordioen eta aktaren kopia ziurtatua eskatzekoa, Kontseilu Errektoreak hartutako eta banaka eragina duten akordioenez gain.

Horrez gain, bazkideek erregistro liburuan egindako izen emateen ziurtagiria ere lortu ahalko dute, aurretik behar bezala arrazoituz eskatuta.

- d) Kooperatibari dagokion egoera ekonomikoari buruzko informazioa jasotzea.
- e) Bazkideek Kontseilu Errektoreari idatziz eskatu ahalko dizkiote Kooperatibaren funtzionamenduarekin edo emaitzekin lotura duten txostenak edo azalpenak; aipatutako

datu horiek idatzia aurkeztu eta hamabost eguneko epean egingo den Batzar Orokorrean eskaini beharko dira.

Bi.- Bazkideek idatziz eskatu ahalko dute, ekitaldiko kontuen gaineko deliberamenduak edo edozein proposamen ekonomiko egin, edo horien gaineko azalpenak edo argibideak eskaini behar den Batzar Orokorra egin baino gutxienez bost egun lehenago. Batzarraren amaieran, kontuak agertzen dituzten dokumentu guztiak Kooperatibako egoitza sozialean jarri beharko dira ikusgai, bazkideek deialdiaren epean azter ditzaten.

Hiru.- Aurreko 1. atalean ezarritako eskubidea horrela izanik ere, boto sozialen guztizkoaren %10 ordezkatzeko duten bazkideek beharrezko iruditzen zaien informazio guztia eskatu ahalko dute idatziz edozein unetan. Administrazioaileek idatziz eskaini beharko dute eskatutako informazioa, gehienez hogeita hamar egun naturaleko epean.

Lau.- Edonola ere, administrazioaileek bazkideei edo horiek ordezkatzeko dituzten organoei jakinarazi beharko die gutxienez hiru hilean behin, eta egoki iruditzen zaien bidea erabiliz, Kooperatibako aldagarri sozio-ekonomiko nagusiak.

Bost.- Administrazioaileek eskatutako informazioari uko egin ahalko die eskaera ausartegia edo oztopoak jartzen dituen bada, edo horiek eskaintzeak Kooperatibaren legezko interesak arrisku larrian jartzen baditu.

Salbuespen hori ez da egokia izango uko egindako informazioa Batzarrean eman beharko balitz eta eskaera bertako eta ordezkaturako botoen erdiak baino gehiagok babestuko balu edo Kontseilu Errektoreak ukapenaren aurka aurkeztutako errekurtsioa ebazterakoan hori erabakiz gero Batzarrak hori adostuko balu.

13. artikulua.- Bazkidearen baja

Bat.- Edozein bazkidek bere borondatez hartu ahalko du baja Kooperatiban; horretarako, sei hilabete lehenago aurre-abisua bidali beharko dio idatziz Kontseilu Errektoreari, ezinbesteko kasuetan izan ezik. Kontseilu Errektoreak baja eskatu duen ikasturte amaiera arte bertan jarraitzeko exijitza diezaioke.

Bi.- Lan bazkideek Kooperatiban egon beharko dute gutxienez bost urteko epean.

Hiru.- Kontseilu Errektoreak bazkide izateko baldintzak galtzen dituztenen derrigorrezko laneko baja adostuko du, interesdunari aurretik jakinarazita, beste bazkideren batek edo eragina jasango duenak eskatuta.

Kontseilu Errektorearen akordioa betearazlea izango da berrespena Batzar Orokorri jakinarazi zaion unetik hori eskatu bazaio edo errekurtsioa jartzeko epea igaro ondoren.

Akordioa bazkidearentzat betearazlea ez den bitartean, baliteke eskubideak etetea Kontseilu Errektorearen irizpideen arabera, baina beti mantenduko du Batzar Orokorrean botoa emateko eskubidea.

Lau.- Bajak kalifikatzea Kontseilu Errektorearen eskumena izango da; Batzar Orokorraren aurrean errekurtsua jarri ahal da hori jakinarazi eta hogeita hamar eguneko epean. Hala ere, ondorengoak beti hartuko dira aintzakotzat:

a) Bidezkoak ez diren bajak:

- * Bazkideak erantzukizunak saihesteko edo modu bidegabean onurak lortzeko bera kanporatzea nahita lortu nahi izateagatik gertatzen direnak.
- * Aurre-abisu epeak errespetatzen ez dituztenak.
- * Bazkideak kooperatibarekin lehiatzeko jarduerak egin behar dituztenean.
- * Jarraitzeko gutxieneko epearen amaiera baino lehen eskatutako bajak, kasuan-kasuan administratzaileek aurkakoa baimentzen ez badute behintzat. Bazkideari jarduerak eta zerbitzuak bete ditzala exijitu ahal da ordu arte bete behar zituen baldintzetan eta kalte-galerengatik dagokion kalte ordainarekin.

b) Bidezko bajak:

- * Erretiro arrazoiagatik.
- * Bazkidea bat egiteko, zatitzeko, kooperatiba mota aldatzeko, helburu soziala nabarmen aldatzeko edo kapital sozialean derrigorrezko ekarpen gehiago egiteko ados ez dagoelako. Horretarako, bazkideak bere aurkako botoa egiaztatu beharko du edo, joan ez bada, bere desadostasuna agertu.
- * Bazkide onuradunen bidezko bajak izango dira seme-alabak, tutoretzapekoak edo, horien kasuan, ikasleak ikastetxetik irten izanak eragindakoak.

III. KAPITULUA. DIZIPLINA SOZIALEKO ARAUAK

14. artikulua.- Bazkideen hutsegite motak

Bat.- Bazkideek egindako hutsegite sozialak honelakoak izango dira: arinak, larriak eta oso larriak.

a) Hutsegite sozial arinak izango dira honako hauek:

- Ordena eta kooperatibaren bizitzaren garapen onerako ezarritako arauak ez betetzea.
- Ezjakintasun saihestezinagatik, Estatutu hauen arabera mota larriagorik ez baldin badago, gutxienez behin, Estatutuen aginduak, araudiak eta funtzionamenduko arauak ez betetzea.

- Arrazoizko kausarik gabe, ekitaldi sozialetara eta, batez ere, Batzar Orokorretara ez joatea, horretarako deia jaso ondoren.
- Kontseilu Errektoreko idazkariari helbide aldaketa ez jakinaraztea hori gertatu eta hiru hilabeteko epean.

b) Hutsegite sozial larriak izango dira honako hauek:

- Hutsegite arinak berriz egitea urtebete baino gutxiagoko epean.
- Ez onartzea edo dimititzea, administratzaileen ustez kausa arrazoiturik gabe, edo aukeratuak izan diren kargu sozialak arduraz ez hartzea.

c) Hutsegite sozial oso larriak izango dira honako hauek:

- Lehiako eragiketak, Kontseilu Errektoreak behar bezala baimendu ez dituenean.
- Estatutu hauetan aurrez ikusitako obligazio ekonomikoak ez betetzea edo atzeratzea, eta kapitalaren ekarpenetan edo Kooperatibako zerbitzuengatik jarri beharreko kuotetan iruzur egitea.
- Hiru urte baino gutxiagoko epean hutsegite larriak berriro egitea.
- Eskuduntza duten organoek baliozkotzat hartutako akordioak nabarmen ez betetzea.
- Beren izaera dela eta, Kooperatibaren interes materialetan edo entzute sozialean kalte nabarmena eragin dezaketen ekintzak betetzea edo jarduerak egitea.
- Administratzaileei dagozkien funtzioak beren gain hartzea.
- Korrespondentziaren sekretua edo Kooperatibaren erreserbatutako dokumentuena apurtzea edo Kooperatibaren erreserbako derrigorrezko datuak ezagutaraztea kanpokoei.
- Kooperatibako langileei edo ikastetxeko ikasleei hitzeko edo ekintza tratu txarrak ematea.
- 10. artikuluan aurrez ikusitako obligazioak behin eta berriro ez betetzea.

Bi.- Bazkide bat berrerorletzat jotzeko, beharrezkoa izango da gutxienez, zehapen irmo bat ondorio izan duen espediente bat egotea. Errekurtso bat ebazterakoan Batzar Orokorrek zigorra erabat altxatzeak berriz erortzea aplikatzea eragotziko du, espedientea sortu duen gertaeraren arabera.

15. artikulua.- Hutsegite sozialengatik zigorrak

Bat.- Hutsegite arinengatik, ahozko edo idatzizko ohartarazpena.

Bi.- Hutsegite larriengatik:

- Idatzizko ohartarazpena; administratzaileen arabera, jendaurrean agertu ahalko da.
- Gehienera jota urtebeteko epean Hezkuntza eta Kooperatibako Sustapeneko Funtsaren karguko laguntza zerbitzuetatik gabetzea.
- Botoa emateko eskubidea bertan behera uztea gehienez urtebeteko epean.
- Administratzaile edo kooperatibako edozein organo sozialetako kide gisa aukeratzeko gaitasuna kentzea beste horrenbeste batzarretan egindako bi hauteskundetan jarraian.

Hiru.- Hutsegite oso larriengatik:

- Eskubide sozial guztiak edo batzuk bertan behera uztea gehienez hiru urteko epean, Hezkuntza eta Kooperatibako Sustapeneko Funtsaren karguko laguntza zerbitzuak barne.
- Kaleratzea.

16. artikulua.- Zehatzeko prozedurak

Bat.- Hutsegiteen espedienteak ondorengo prozeduraren arabera beteko dira:

- a) Hutsegite arinen kasuan, karguen plegua instrukzio kide batek egingo du, Kontseilu Errektoreak bere baitan izendatutakoak, eta erruduntzat jotako kideari idatziz jakinarazi beharko dizkio, interesdunari entzun ondoren, hutsegitearen behin-behineko kalifikazioa eta dagokion zigor proposamena.

Bazkideak deskargua egin eta Kontseilu Errektorearen aurrean aurkeztu ahalko du; azken horrek zehaztuko ditu behin betikoak eta apelaezinak diren kalifikazioa eta zigorra organo sozialen aurrean.

- b) Hutsegite larrien eta oso larrien kasuan, karguen plegua Instrukzio Batzorde batek egin beharko du; aipatutako Batzordea Kontseilu Errektoreko hiru kidek osatzen dute eta inputatutako bazkideari jakinarazi beharko dio, interesdunari entzun ondoren, hutsegitearen behin-behineko kalifikazioa eta dagokion zigor proposamena.

Bazkideak deskargua egin eta Kontseilu Errektorearen aurrean aurkeztu ahalko du; hark kalifikazioa eta proposatutako zigorra berretsi edo aldatu ahalko ditu.

Erruduntzat jotako bazkideak Batzar Orokorraren aurrean jarri ahalko du errekurtsua; aipatutako Batzarrak errekurtsua aurkeztu eta lehenengo bileran ebatzi beharko du, gai zerrendan sartzea posible bada.

Bi.- Erruduntzat jotako bazkideek ezingo dute inola ere esku hartu beren deskargua babesteko ez bada, harengan, ezkontidearengan, edo odolkidetasuneko edo ahaidetasuneko bigarren maila arteko lotura duten senideengan eragina izango duen espedientearen erabakian eta izapideetan.

Batez ere, erruduntzat jotako bazkideak ezin izango du botoa emateko eskubidea erabili gai honen inguruan Batzar Orokorrean edo Kontseilu Errektorean. Horrez gain, ezingo ditu bere kargu sozialak erabili gai zerrendako puntuetariko bat espediente horiekin lotura duten edozein erabaki hartzea bada; beharrezko denean, gainera, Estatutuek xedatutako pertsonak hartu beharko du bere kargua.

Hiru.- Berme juridiko arrazoiak direla eta, diziplina espedienteen fase bakoitza (kaleratzeko espedienteek dituzten berezitasunak albo batera utzita) hau izango da:

- a) Espedientea zabaltzeko epeak, erruduntzat jotako bazkideari egin beharreko jakinarazpena barne, arrazoiak sortu duen gertaera Kontseilu Errektoreak jakindako unetik hilabete batekoak, bikoak eta hirukoak izango dira hutsegite arin, larri eta oso larri gisa tipifikatuta dauden kasuentzat, hurrenez hurren.

Edonola ere, arau haustea egin denetik hasita, epea, gehienez, hamabi hilabetekoa izango da.

Epe horiek eten egingo dira prozedura abian jartzean eta berriro hasiko dira lau hilabeteko epean ez bada espedientearen erabakirik jakinarazten edo ematen.

- b) Hutsegite larriengatik eta oso larriengatik jarritako zigorren aurkako errekurtsuak aurkezteko epea hogeita hamar egunekoa izango da dagokion jakinarazpena jaso den unetik hasita.

Lau.- Zigor guztiak betearazleak izango dira dagokion errekurtsua jartzeko epea agortu den hurrengo egunetik hasita espedientea ezarri zaion bazkideak eskubide hori erabili ez badu, edo Batzar Orokorrak dagokion erabaki apelaezina hartu eta hurrengo egunetik hasita.

Bost.- Kanporatzeko hipotesirako aurrez ikusitakoa hori izanik ere, Kontseilu Errektoreak betetzeke dauden zigorren zatia edo igarotako zigorren oharrak bertan behera utzi ahalko ditu interesdunek eskatuta, bere ustez errehabilitazioa gertatu bada.

17. artikulua.- Kaleratzea

Bat.- Kaleratzea Kontseilu Errektoreak bakarrik adostu ahalko du Estatutu hauetan aurrez ikusitako hutsegite oso larriengatik, horretarako bideratutako espedientearen arabera, aurreko artikuluan aurrez ikusitako prozedurak xedatutakoa betez izaera horretako hutsegiteentzat, jarraian azaltzen diren berezitasunekin.

Bi.- Kanporatze akordioaren aurka, interesdunak Batzar Orokorraren aurrean errekurtsua jarri ahalko du hori jakinarazi eta hogeita hamar eguneko epean.

Errekurtsua egingo den lehen Batzar Orokorraren erabakiaren menpe egongo da; arrunta edo apartekoa izan, horretarako espresuki deitu ere egin ahalko da eta gai zerrendako lehen gai gisa gehituko da.

Batzar Orokorrak bozketa sekretu bidez ebatziko du, aurretik interesdunari jakinarazita.

Hiru.- Kanporatua izan den bazkide bat berriz onartzea Batzar Orokorraren eskuduntzaren menpe soilik egongo da beti.

IV. KAPITULUA. ERREGIMEN SOZIO LABORALAREN XEDAPENAK

18. artikulua.- Lan bazkideen Gizarte Segurantzako erregimenaren aukera

Bat. Bazkide langileen Gizarte Segurantzako estaldurarako, kontsolidatuak zein probaldian daudenak izan, Kooperatibak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorra aukeratzen du.

Bi. Lan bazkideen eta besteren konturako langileen ordainketek ezingo dute sektoreko soldatako langileentzat aplikagarriak diren Hitzarmen Kolektiboak ezartzen duen jarduera eta kategoria profesionalaren arabera ordainsarien %50 baino altuagoak izan.

V. KAPITULUA. KOOPERATIBAKO ORGANO SOZIALEI BURUZKOA

19. artikulua.- Organo sozialak

Bat.- Kooperatiba ondorengo organo sozialek osatuko dute eta horietariko bakoitzean ondorengoa soilik izango da horien eskuduntzen titularra.

- Batzarra.
- Kontseilu Errektorea.
- Zaintza Batzordea.

Bi.- Barne mailan, gainerako instrumentu guztiak sortu ahalko dira, hezkuntzako legeriak batez ere aurrez ikusitakoak Zentroko estamentu ugariak parte hartu ahal izateko, beren bazkide izaera edozein delarik ere; hori da, esate baterako, ondorengo kasua: Gurasoen Elkartea eta Ikasleen Kontseilua, Eskola Kontseilua eta Irakasleen Klaustroa, une bakoitzean egoki irizten diren Hezkuntza Zuzendaritzez gain.

Horiek Barne Araudiaren arabera erregulatu ahalko dira, Batzar Orokorrak igor ditzakeen araudietan edo eragina jasango duten estamentuetako arauetan, funtzionamendu sozialean edo kolektibo sozialeko beste talde batzuetan eraginik ez badute behintzat.

LEHEN ATALA.- BATZAR OROKORRARI BURUZKOA

20. artikulua. Batzar Orokorra

Bat.- Batzar Orokorra da bazkideek eztabaidatzeko eta beren eskuduntzako gaien inguruko akordioak hartzeko bilera.

Bazkide guztiak, bertaratu ez direnak eta disidenteak barne, Batzar Orokorraren akordioen menpe geratuko dira.

Bi.- Batzar Orokorrari soilik dagokio ondorengo akordioak hartzea:

- a) Administrazioaileak, Zaintza Batzordeko kideak eta likidatzaileak boto sekretu bidez izendatzea eta atzera botatzea; eta horien aurkako erantzukizun ekitaldia bideratzea.
- b) Kontu auditoreak bidezko kausagatik izendatzea eta baliogabetzea.
- c) Azterketak egitea ondorengo gaien inguruan: kudeaketa soziala, urteko kontuen onarpena eta soberakinen banaketa edo galeren egozpena.
- d) Derrigorrezko ekarpen berriak eta Kooperatibako izaera duten sarrera edo aldian aldiko kuotak ezartzea.
- e) Obligazioak, partaidetzako tituluak edo partaidetza bereziak igortzea.
- f) Estatutu Sozialak eta Barne Araudia aldatzea eta gaitzestea.
- g) Bigarren mailako kooperatibak, kooperatibako korporazioak eta antzeko erakundeak eratzea.
- h) Kooperatibak bat egitea, zatitzea, transformatzea eta sakabanatzea adostea.
- i) Kooperatibaren ekonomia, antolaketa edo funtzio mailako egituraren aldaketa nabarmenak onartzea.
- j) Estatutu hauetan edo legezko xedapenetan modu berezian idatziz jasotakoak.
- k) Legeak horrela xedatzen dituen gainerako akordioak.

Hiru.- Batzar Orokorrak kooperatibarentzat interesdunak diren gaien inguruan eztabaidatu ahalko du; gainera, Legearen arabera, beste organo sozial baten eskuduntzakoak soilik ez diren gaien inguruko derrigorrezko akordioak soilik hartu ahalko ditu.

Lau.- Artikulu edo legezko arau honen arabera Batzar Orokorrari dagozkion eskuduntzak eskuordetu ezinezkoak dira.

21. artikulua.- Batzar Orokorren deialdia

Bat.- Kontseilu Errektoreak egingo du Batzar Orokorren deialdia, eta arrunta edo apartekoa izan ahalko da.

Bi.- Aparteko Batzar Orokorra urtean behin deituko da, ekitaldi soziala itxi eta sei hilabeteko epean, kudeaketa soziala, urteko kontuak eta emaitzen banaketa aztertzeko eta onartzeko (egoki iritzi gero); horrez gain, gai zerrendan agertzen diren gainerako alderdiak ere aztertuko ditu. Batzar Orokor Arruntaren gai zerrendan bere eskuduntzakoak diren gai guztiak gehitu ahalko dira.

Hiru.- Batzar Orokor Arrunta ez balitz 2. atalean aurrez ikusitako epearen barnean deituko, edozein bazkidek eskatu ahalko dio Kontseilu Errektoreari frogagarri moduan ez egitea salatuz. Kontseilu Errektoreak eskaera hori egin eta hamabost eguneko epean deialdirik egingo ez balu, bazkideak Batzar Orokorren deialdia eskatu ahalko dio egoitza sozialaren lehen auzialdiko epaileari, horren buru izango denaren izendapena barne. Batzar Orokor horrek, nahiz eta epez kanpo deitu, ez du Arrunt izaera galduko.

Lau.- Batzar Orokorren gainerako saioek aparteko izaera izango dute eta Kontseilu Errektorearen ustez, Kooperatibaren intereserako denean edo boto sozialen gutxienez %20 ordezkaten duen bazkide kopuruak hala eskatuta soilik deituko da, edo Zaintza Batzordeak hala eskatuta, eskaera frogagarri bidez, eskaera hori eragin duten gaiak bilduko dituen gai zerrenda aurkeztuz nahitaez. Eskaerari erantzun gabe hogeita hamar egun igaroko balira, aurreko atalean xedatutako baldintzen arabera deialdi judiziala eskatu ahalko da.

Bost.- Batzar Orokorren deialdia bazkide bakoitzari bidalitako idatzi pertsonal bidez egingo da; horrez gain, egoitza sozialeko iragarkien oholean ere erakusgai jarriko da gutxienez hamar egun lehenago eta gehienez Batzar Orokorra egin baino hogeita hamar egun lehenago.

Bazkide kopurua bostehun baino gehiagokoa bada, egoitza sozialeko lurraldean hedapen handia duten egunkarietan argitaratu beharko da iragarkia.

Sei.- Deialdiak, gutxienez, bileraren eguna, ordua eta tokia adierazi beharko ditu lehen eta bigarren deialdian; horien artean, gutxienez, ordu erdi igaro beharko da eta gai zerrenda behar bezala zehaztuta adierazi beharko da.

Erabaki beharreko gaien artean bazkideen kaleratzeari buruzko errekurtsioak ebatzea dagoenean, gai horiek landuko dira lehenik.

Zazpi.- Boto sozialen gutxienez %10 ordezkaten duen bazkide kopuruak gai zerrendan beraiek nahi dituzten gaiak sartzeko eskatzeko eskubidea izango dute; izapidetze hori deialdia jakinarazi, kaleratu eta hurrengo bost egunetan egin beharko dute Kontseilu Errektoreari zuzendutako idatziaren bidez; Kontseilu Errektoreak gai horiek gehitu beharko ditu gai zerrenda berria kaleratuz, beranduenera jota Batzarra egin baino lau egun lehenago, eta inola ere ezingo da Batzarra atzeratu.

Deialdiaren data gisa hartuko da epeak neurtzeko prentsan agertzen den edozein iragarkirena, derrigorrezko deialdia egiteko gainerako bideak betetzea ziurtatzen ez bada behintzat.

Zortzi.- Aurreko ataletan zehaztutakoa horrela izanik ere, bilera baliozkoa izango da eta bazkide guztiak bertan edo ordezkatuta badaude eta Batzarra egin dela eta horren gai zerrenda aho batez onartzen eta izenpetzen badute, deialdia ez da beharrezkoa izango.

22. artikulua.- Batzar Orokorraren funtzionamendua

Bat.- Batzar Orokorra, izaera unibertsala duena salbu, egoitza soziala dagoen udalerrian edo administratzaileek izendatutako beste edozein tokitan egingo da, ez badago kausa arrazoiturik. Kausa arrazoitua izango da edonola ere udalerrri horretan Batzarrera ustez joango den bazkide kopurua kokatzeko adina baldintza betetzen duen lokalik ez egotea.

Bi.- Batzar Orokorra eratuta geratuko da lehen deialdian boto sozialen erdia baino gehiago bertan edo ordezkatuta daudenean eta bigarren deialdian boto sozialen gutxienez %10 edo ehun boto bertan edo ordezkatuta daudenean.

Batzar Orokorra deitzea adostu zen egunean bazkide izaera zutenek laguntza eskubidea izango dute.

Hiru.- Bazkideak, beste bazkide batek ordezkatu ahalko ditu idatziz, batez ere Batzar Orokor bakoitzean.

Batzar unibertsalaren kasuan, ordezkaritza bermatzeko idatzian aurrez ikusitako gai zerrenda agertu beharko da.

Bere buruarenaz gain, bazkideak ezin izango ditu bi ordezkaritza baino gehiago izan. Ordezkaritza ezeztagarria da. Ordezkaria Batzar Orokorrera joateak baliozgabe balioa izango du.

Guraso diren bazkideak beren ezkontideak edo haiekin antzeko elkarbizitzako harremana duen pertsona batek, edo adin nagusiko seme-alabek edo emantzipatuek ordezkatu ahalko dituzte; horretarako, Batzar Orokorraren bilera guztietarako balioa izango duen idatzia egin beharko da, atal honetan bertan aurrez ikusitako bideen bidez baliozgabe ez den bitartean. Ordezkaritza honek balioa izan dezan, ezinbesteko baldintza izango da hori erabili behar duten bazkideek Kooperatibari aurretik jakinaraztea pertsona horiekin duten ahaidetasun edo harreman mota zein den; datu hori Kooperatibako bazkideen liburuan gordeko da eta aldaketa jakinarazi arteko balioa izango du.

Lau.- Batzar Orokorreko lehendakaria Kontseilu Errektorea izango da; hori egon ezean, presidenteordeak hartuko luke kargu hori, eta hori ez badago, Batzarrak eguneko gai zerrendaren inguruan eztabaida egiten hasi aurretik aukeratutako bazkideak.

Lehendakariari dagokio erabakiak zuzentzea, desbideratzerik gerta ez dadin edo gai zerrendan sartuta ez dauden gaiak ez erabakitzea zaintzea, Batzarraren ordena mantentzea eta formalitate legalak betetzen direla zaintzea.

Idazkari gisa jardungo du Kontseilu Errektoreko idazkariak edo hori egon ezean, lehendakaria aukeratzeko aurrez ikusitako irizpide berak jarraituko ditu Batzarrak aukeratzen duenak.

Batzarrak ezingo ditu deliberamenduak hasi lehendakaria eta idazkaria izendatu gabe.

Bost.- Baliorik gabeak izango dira gai zerrendan agertzen ez diren gaien inguruko akordioak, Legeak aurkakoa xedatzen ez badu behintzat.

Sei.- Administratzaileek Batzar Orokorretara joan beharko dute eta bazkide izan ez arren, Batzar Orokorrak eztabaidatuko diren gainerako interesgarriak izan daitezkeela uste duen pertsonak ere joan ahal izango dira.

Zazpi.- Idazkariak idatziko du saioaren akta eta ondorengoak adierazi beharko ditu gutxienez:

- a) Batzarraren data eta tokia.
- b) Deialdia egin den data eta modua.
- c) Deialdiaren testu osoa.
- d) Bertaratutako pertsona kopurua eta horien izen zerrenda. Pertsonalki eta ordezkatuta zenbat lagun agertu diren adierazi beharko da. Horrez gain, ordezkarien kasuan, zein ordezkapen mota duten jarri beharko da.
- e) Batzarra lehenengo edo bigarrenengo deialdian egin den.
- f) Eztabaidatutako gaien eta aktan jasota uzteko eskatu diren parte hartzeen laburpena.
- g) Hartutako akordioen edukia eta bozketen emaitzak.
- h) Aktaren onarpena, saioa amaitzean gertatuko balitz.

Batzar Orokorraren akta batzarra egin eta hurrengo hamabost egunetan onartuko dute lehendakariak eta bertan izendatutako bi bazkidek; akta hori aipatutakoek eta idazkariak izenpetuko dute, Batzarrak bileraren amaieran onartzen badu izan ezik.

23. artikulua.- Boto eskubidea

Bazkide bakoitzak boto bat izango du eskubidea eten edo derrigorrezko abstentzioa gertatu den kasuetan izan ezik.

Horrez gain, botoen balioa neurtzeko beharrezko hipotesiak kontuan izango dira, Legeak edo Estatutu hauek zenbait kolektiborentzat zehaztutako boto eskubidearen murrizketak derrigortuta.

24. artikulua.- Gehiengoak

Bat.- Batzar Orokorraren akordioak behar bezala emandako botoen erdia baino gehiagorekin hartuko dira; horretarako ez dira boto zuriak eta abstentzioak zenbatuko.

Bi.- Bertako eta ordezkaturako botoen kopurua Kooperatibako boto sozial guztien hiru laurden baino gutxiagokoa baldin bada, bertako botoen eta ordezkaren artean Kooperatibaren transformazioa, bat egitea, zatitzea eta banatzea adosteko, bi herenen gehiengoa beharrezkoa izango da.

Hiru.- Kontseilu Errektoreko kideak kargutik kentzeko akordioak (gai zerrendan agertzen ez direnean) bertako eta ordezkaturako aldeko botoen bi heren beharko ditu.

BIGARREN SEKZIOA.- KOOPERATIBAREN ADMINISTRAZIOARI ETA ORDEZKARITZARI BURUZKOA

25. artikulua. Administratzaileak

Bat.- Administratzaileak modu kolegiatuan osatuko dira Kontseilu Errektorea eratzuz; horri bakarrik dagokio Kooperatiba kudeatzea eta ordezkatea, horretarako beharrezko diren ekintza guztiak eginez Kooperatiba ordezkatzeko epaiketan eta horretatik kanpo. Gainera, organo sozialentzat bakarrik erreserbatuta ez dauden ahalmenak izango ditu.

Bi.- Kontseilu Errektoreari dagozkio ondorengo ahalmen zehatzak eta inola ere ez dute izaera zehatza izango, adierazteko ondorengoak soilik baitira:

- a) Bazkideen onarpena eta baja adostea, Legeak eta Estatutu hauek aurrez ikusitakoa betez.
- b) Kooperatiba ordezkatea, erantzukizun osoz, edozein ekitaldi eta kontratutan, batez ere, parte hartzen duen batzar orokor guztietan.
- c) Zuzendari nagusia eta saileko zuzendariak bereiztea eta izendatzea, horien ahalmenak, betebeharrak eta ordainsariak zehaztuz.
- d) Langileak izendatzea, plantilak osatzea eta ahalmenak, funtzioak, atribuzioak, fidantzak, aurrerakinak, soldatak eta gainerako ordainsariak edo eskersariak zehaztea.
- e) Kooperatibaren martxa antolatzea, zuzentzea eta aztertzea, eta Kooperatibaren Barne Araudia eta horren aldaketak Batzar Orokorrari proposatzea.
- f) Helburu soziala lortzeko beharrezko edo komenigarriak diren jarduerak eta kontratuak egitea, ondasun higiezinak erosteari edo besterentzeari buruzkoak, benetako eskubideak eratzearen gainekoak (hipoteka barne) eta batez ere alokairuari buruzkoak direnak salbuetsi gabe, eta Estatutu hauek Kooperatibari ahalbidetzen dizkien negozio eta eragiketa guztiak konpontzea.
- g) Araudi funtzionalak onartzea, Estatutuen eta arauen aginduak behar bezala aplikatzeko beharrezkoak direnak, edo Batzarreko akordioak gauzatzeko beharrezkoak direnak; horrez gain, Batzar Orokorrari proposatzea Estatutu hauek edo Kooperatibako Barne Araudiak aurrez ikusitako araudi instituzionalak, eta beren garrantzia dela eta, berak erabakia hartu beharreko beste batzuk.

- h) Kooperatibak erabakitako eta Batzar Orokorraren esku ez dauden kreditu, mailegu edo sinadura bermeko eragiketak adostea.
- i) Erakunde publikoen eta pribatuen aurrean abalak ematea, zein edozein titulu, zor publikoko edo balio higigarri edo higiezin saltzea, erostea, izenpetzea eta gordailu gisa ematea, Zuzenbidean onartutakoak; gainera, egoki irizten zaion moduan eragina izan dezakete.
- j) Ekarpinak, Bonuak eta Obligazioak jaulkitzeko eta izenpetzeko beharrezkoa zehaztea, Batzar Orokorrak erabakitakoaren arabera.
- k) Eskuragarri dauden funtsen inbertsio zehatza finkatzea, Erreserba eta Hezkuntza eta Kooperatibako Promozioko funtsez gain, Batzar Orokorrak hartutako akordioak errespetatuz, aurrekontuak sortu, gastuak baimendu eta Kooperatibako ordezkariak eta ahalduak izendatzea, kasu bakoitzean horiei ematea egoki irizten zaien ahalmenekin.
- l) Batzar Orokor Arruntak eta Apartekoak deitzea, eta horien akordioak betetzea.
- m) Batzar Orokor Arruntari Urteko Kontuak urtero aurkeztea, hark aztertu eta egoki iritziz gero onar ditzan, eta Eskuragarri dauden soberakinak banatzeko proposamena egitea.
- n) Funts eta ondasun sozialak izatea, horiek eskatzea, jasotzea eta kobratzea, partikularrengandik zein bulego publikoetatik, Kutxa Nagusitik gordailuak atereaz edo sortuz, eta interes sozialei komeni zaien tokietara eramanez. Kontu korranteak eta banku gordailuak eskudirutan, kredituetan edo baloreetan sortzea; horietatik dirua edo baloreak ateratzea eta, oro har, nazio baitako edo atzerriko erakundeekin banku eragiketa guztiak egitea, baita Espainiako Bankuan ere. Kooperatibako funtsak eta ondasunak korrespontsalen esku izatea. Kanbio letrak ordaintzea, libratzea, abalatzeta, negoziatzea eta endosatzea.
- ñ) Kooperatibaren eskubideak edo akzioak lantzearen inguruan egoki iruditzen zaiona adostea epaitegien eta auzitegien aurrean eta bulegoetan, agintarien aurrean, korporazioetan edo edozein lurralde eremutako Administrazio Publikoko organismotan. Bestalde, errekurso arruntak eta apartekoak aurkeztea, ordezkariak, prokuradoreak edo abokatuak izendatuz, horretarako Kooperatibaren ordezkariak eta babes lanak egin ditzaten, horretarako beharrezko ahalmenak emanez; ahalmen horien baitan egongo dira ondorengoak ere: kontziliazioetan, espedienteetan, auzietan, erreklamazioetan, errekursoetan edo edozein motatako jardueretan eta edozein prozedura egoeratan, prozedura hori eteteko eskatzeko eta beharrezko den edozein gauzatarako, baita judizialki osotasun osoz onartzea ere.
- o) Ondorio zehatz batzuetarako edo negozio sozialeko adar jakin batzuk zuzentzeko pertsona jakin batzuei botereak ematea.
- p) Estatutu hauen interpretazioaren inguruan sor daitezkeen zalantzak konpontzea, lehenengo egingo den Batzar Orokorrean horren berri emanez.
- q) Estatutu hauetan modu berezian idatziz jasota dauden beste batzuk.

26. artikulua.- Kontseilu Errektorea osatzea, aukeratzea eta bete gabe dauden plazak

Bat.- Kontseilu Errektorea hamasei administratzailek osatuko dute; horietariko hiru lehendakaria, presidenteordea eta idazkaria izango dira. Horiek izendatzearekin batera zortzi ordezkotako izendatuko dira eta plazaren bat behin betiko hutsik geratuko balitz, horiek ordezkotako dituzte Estatutu hauen arabera agintaldia amaitzeko geratzen den denboran.

Kontseilu Errektoreko kideen laurden bat arte aukeratu ahalko dute bazkide ez direnek.

Bi.- Kontseilu Errektoreko kideak Batzar Orokorrean aukeratuko dituzte bozketa sekretu bidez eta agintaldia laur urtekoa izango da, baina epe mugagaberako berriz aukeratu ahalko dituzte. Epe hori igarotzean, administratzaileek beren karguan jarraituko dute aldi baterako, hurrengo Batzar Orokorra egin arte.

Berritze erdia egingo da bi urtez behin. Kide guztiek karguan denbora bera badaramate, lehenengo zortzi hautagai titularrak berritu eta beren izendapeneko Batzarrean boto kopuru txikiena lortu zuten lau ordezkotako izendatuko dira lehenik eta behin.

Hiru.- Egingo den lehen bileran, Kontseiluak berak beteko ditu ondorengo karguak: lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria. Kargu horiek aukeratzekoan berdinketa gertatuko balitz, lehendakaria Kontseilu Errektoreko kiderik zaharrena izango litzateke, eta idazkaria, gazteena.

Lau.- Legeak aurrez ikusitako bateraezintasun eta ezgaitasun kasuak dituztenez gain, ondorengoak ezingo dira administratzaile izan:

- a) Laneko eszedentzia egoeran dauden lan bazkideek, aldi horrek irauten duen bitartean.
- b) Hasierako obligazio ekonomikoak bete ez dituzten sozioak (Kooperatiban sartzeko ezarrita dauden beren obligazio ekonomikoak ordaintzea eta izenpetzea).
- c) Eskubide hori kendu zaienak.

27. artikulua.- Kontseilu Errektorearen funtzionamendua

Bat.- Kontseilu Errektorea, derrigor, hilean behin bilduko da eta aparteko deialdi bidez administratzailearen batek hala eskatuta deitu ahalko da; bilera horietan bere eskuduntzako gai guztiak landu eta erabaki ahalko dira.

Kontseilu Errektorearen bilerak lehendakariak deituko ditu administratzaile bakoitzari zuzendutako idatzi bidez.

Aparteko deialdiaren eskaerari, aurreko atalean aurrez ikusitakoari, lehendakariak zazpi eguneko epean erantzunik emango ez balio, arrazoitutako eskaera egin duenak Kontseilu Errektorearen deialdia egin ahalko du; baina horretarako, gutxienez, administratzaile guztien heren bateko atxikipena lortu behar du.

Bi.- Kontseilu Errektorea behar bezala osatuta geratuko da bilerara partaideen erdia baino gehiago joaten denean. Bertara joatea pertsonala izango da eta ordezkariak ez da posible izango; akordioak bertan dauden administratzaileen gehiengo sinple bidez hartuko dira eta kontseiluko kide bakoitzak boto bat izango du. Lehendakariaren botoak ebatziko ditu berdinketak.

Hiru.- Bileraren aktak, lehendakariak eta idazkariak izenpetuko dutenak, eztabaidak ontzat hartutako moduan, akordioen testua eta bozketen emaitzak bilduko ditu.

Lau.- Kontseilu Errektoreak bertaratutakoen gutxienez bi herenen aldeko botoa beharko du ondorengo akordioak hartzeko:

- a) Jardueraren zentro nagusia edo horren zati bat ixtea eta lekuz aldatzea.
- b) Kooperatibaren jarduera murriztea, handitzea edo aldatzea nabarmen.
- c) Kooperatibaren antolaketaarako garrantzi handiko aldaketak.
- d) Beste erakunde batzuekin harremanak hastea edo desagertzea, kooperatibak izan edo ez, Kooperatibarentzat etengabekoa eta baliagarria den lankidetzaren harremana osatzen badute.

Bost.- Kontseiluko kide kargua doakoa izango da, kontseiluko kideak bere funtzioak garatzerakoan izan ditzakeen gastuengatik jasoko dituen ordain ekonomikoak albo batera utzi gabe.

HIRUGARREN SEKZIOA.- ZAINZA BATZORDEA

28. artikulua.- Zaintza Batzordea

Bat.- Gutxieneko bazkide kopurua ehunekoa denean, edo Batzar Orokorak hori erabakitzen duenean, hiru kide titularrek eta beste hiru ordezkariak osatuko duten Zaintza Batzordea aukeratuko da.

Bi.- Organo sozial honetako bi kide Batzar Orokorak aukeratu eta baliogabetuko ditu, bazkideen artean egingo den bozketa sekretu bidez. Horretarako, boto gehien jaso duten hautagaiak aukeratuko dira, hutsik dauden postuak betetzeko beharrezko kopurua lortu arte, titularrenak zein ordezkariak.

Bidezko kausa izango da izendatua izan den karguari uko egiteko aurreko bi urteetan organo sozial berean kargua bete izana.

Zaintza Batzordeko kideak erantzukizunari, ordaintetari, ezgaitasunari, debekuei eta Kontseilu Errektorearentzat ezarritako erregistro inskripzioei buruzko arauen menpe egongo dira.

Besteren konturako langile kopurua berrogeita hamar baino gehiagokoa denean, horien ordezkari bat, soldatapekoek aukeratutakoa, aldi baterako kontratua dutenen artean, Zaintza Batzordeko kide bihurtuko da.

Hiru.- Agintaldiaren iraupena bi urtekoa izango da eta denbora mugagaberako berriz aukeratu ahalko dira. Inola ere ez da bere agintaldia Kontseilu Errektorekoarekin batera izango.

Hauteskudeen bi aldiren artean sortutako postu hutsak bi ordezkok beteko dituzte ordezkatu dutenari geratzen zitzaion aldirako.

Lau.- Ondorengoak izango dira haren ahalmenak eta funtzioak:

- a.- Batzar Orokorrari aurkeztu aurretik, horien gaineko eta soberakinen banaketa egiteko edo galerak egozteko proposamenari buruzko nahitaezko txostena igorritz, urteko kontuak berrikustea, Kooperatibak bere finantza egoerak kontu ikuskaritzaren menpe jartzea ezinbestekoa denean izan ezik.
- b.- Kooperatibako liburuak berrikustea.
- c.- Batzar Orokorrerako deialdia egitea Kooperatibaren intereserako komeni denean eta Kontseilu Errektoreak bazkideek edo organoak berak egindako eskaerari jaramonik egin ez bazaio ezarritako epeetan.
- d.- Aurkezpeneko idatziak aztertzea eta egokiak diren kalifikatzea eta, or ohar, Batzarretara sartzeko eskubideari buruzko zalantzak edo gorabeherak konpontzea.
- e.- Akordio sozialen aurka egitea Legeak xedatutako baldintzetan.
- f.- Egindako egoeren eta gai zehatzen berri Batzar Orokorrari ematea.
- g.- Batzar Orokorrak gainerako organo sozialetako kideak aukeratzeko eta izendatzeko erabilitako prozesua zaintzea.
- h.- Legeak eta Estatutu hauek ezarritako ezintasun eta debeku kausak egiten dituzten Kontseilu Errektoreko kideak kanporatzea, eta bere kasuan, Batzar Orokorra egin arteko ezinbesteko neurriak hartzea.
- i.- Legeak espresuki ematen dizkion edo eskatzen dizkion gainerako funtzio eta ahalmenak.

Bost.- Kontseilu Errektoreak, gutxienez, hiru hilean behar jakinarazi beharko dio Zaintza Batzordeari Kooperatibaren jarduera aurrez ikusitako bilakaera zeintzuk izango diren.

Sei.- Zaintza Batzordeko kideek Estatutuen bideetatik kanpo kooperatibako kideei ere ezingo die ikerketen edo jasotako informazioen emaitzarik eman.

VI. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA

29. artikulua.- Kapital soziala.

Bat.- Kapital soziala derrigorrezko ekarpenek eta bazkideen borondatezko ekarpenek osatuko dute.

Kooperatibak gutxienez, milioi bat zortziehun eta laurogeita bat pezetako (1.881.000.-) kapital soziala izango du, erabat ordaindua eta izenpetua.

Bi.- Bazkide bakoitzak, izaera hori mantentzeko, gutxienez mila pezetako (1.000.-) ekarpena izan beharko du. Zenbateko hori urtero eguneratu ahalko du Batzar Orokorrak.

Kapital Sozialera egindako ekarpenak lehendakariak eta Kontseilu Errektoreko idazkariak sinatutako titulu izendun bidez ziurtatuko dira.

30. artikulua.- Derrigorrezko ekarpenei eta sartzeko kuotei buruzkoa

Bat.- kapital sozialera egin beharreko hasierako derrigorrezko ekarpena hiru mila (3.000.-) pezetakoa izango da bazkide onuradunentzat zein lan bazkideentzat eta laguntzaileentzat.

Onartzeko unean, bazkideek hasierako derrigorrezko ekarpen osoa izenpetu eta gutxienez horren %25 ordaindu beharko dute. Gainerako zenbatekoa onartu eta hurrengo ikasturtea hastean ordaindu beharko dute.

Urtean behin, Batzar Orokorrak ezarriko du bazkide berrientzako hasierako derrigorrezko ekarpenaren zenbatekoa.

Bi.- Bazkideek hasierako derrigorrezko ekarpenarekin batera ordaindu beharko dute indarrean dagoen hasierako derrigorrezko ekarpenaren %25aren baliokidea den sarrera kuota, Batzar Orokorrak hori adosten badu.

Sarrera kuotak ez dira kapital sozialean sartuko; horren ordez, Derrigorrezko Erreserba Funtsa osatuko dute eta ez dira berriz itzuliko.

31. artikulua.- Borondatezko ekarpenei buruzkoa

Batzar Orokorrak borondatezko ekarpenak kapital sozialean sartzeari adostu dezake, horien baldintzak zehaztuz.

32. artikulua.- Ekarpenen interesak eta eguneratzea

Bat.- Derrigorrezko ekarpenek ez dute interesik sortuko.

Bi.- Borondatezko ekarpenek ezingo dute diruaren interes legala baino interes handiagoa sortu.

Hiru.- Kooperatibaren Balantzea zuzenbide komuneko sozietateentzat aurrez ikusitako baldintza eta onura beretan arautu ahalko da. Aktiboak erregularizatzen eratorritako gainbalioa, bere kasuan,

aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko zuzenduko da oso-osorik eta gainerakoa banaezina den Erreserba Funts batera zuzenduko da.

33. artikulua.- Ekarpenen transmisioa

Ekarpenak transferigarriak dira:

- a) Sozioen artean, beraien arteko ekintzengatik, eta hiru hilabeteko epean sozio izateko konpromisoa hartzen dutenen artean.

Kontseilu Errektoreak transmisio horiek baimendu beharko ditu transmisioa jakinarazi eta hamabost eguneko epean.

Uko egitea behar bezala arrazoitu beharko da eta Estatutu hauetan ezarritako arauen bat ez betetzeak edo transmisio egileak obligazioren bat saihesteko asmoa duela nabarmen geratzeak (ekonomia alorrekoak batez ere) soilik eragingo du.

Bazkide berrien kasuan, onarpenetarako ezarritakoaren arabera izango da.

Hasierako derrigorrezko ekarpena egiteko edo sarrera kuota ordaintzeko, partaidetza sozialen transmisioak inola ere ez du balioko.

- b) *Mortis causa* oinordetzagatik, automatikoki eta inolako dedukziorik gabe. Kausadunak ez badira bazkideak, bazkide gisa onarpena eskatu beharko dute heriotza gertatu eta 3 hilabeteko epean.

34. artikulua.- Ekarpenen dirua itzultzea

Bat.- Bazkide izaera galdu den kasu guztietan, bazkideek edo horien kausadunek beren ekarpenak itzultzeko eskatzeko ahalmena izango dute, baja emandako datan duten balioarekin, balantzearen galerak eta ikasturte horretako galerak egotzi ondoren.

Bi.- Kenkariak edo dedukzioak:

Diru itzulketa arrazoitutako bajagatik edo heriotzagatik gertatzen denean, ekarpenetan ez da inolako dedukziorik egingo.

Gainerako kasuetan, administratzaileek dedukzioa adostu ahalko dute:

- Kaleratzeagatik gertatutako bajetan %30 artekoa.
- Arrazoitutako baja kasuetan, %20 artekoa. Arrazoi eza gutxieneko egote epea ez betetzeak eragingo balu, %30 artekoa izan ahalko litzateke.

Dedukzio hauek bazkidearen derrigorrezko ekarpenen zenbatekoaren gainean egingo dira baja eman den datan, eta borondatezko ekarpenetan ez da inolako dedukziorik egingo.

Hiru.- Dirua itzultzeko baldintzak.

1. Dirua itzultzeko epea ez da bost urte baino gehiagokoa izango, baja eman den unetik hasita; hori zehaztea administratzaileen esku egongo da eta haiek zehaztuko dute epea, Kooperatibaren finantza egoeraren eta bajaren baldintzen arabera.
2. Itzultzeke dauden zenbatekoek diruaren interes legalaren parekoa den interes gordina jasotzeko eskubidea emango dute.
3. Itzultzeko dagoen zenbatekoak ez du errebalorizaziorako eskubiderik emango.
4. Bazkidea hilko balitz, ekarpenen itzulketa kausadunei egin beharko zaie kausaduna hil eta urtebeteko epean.

35. artikulua.- Eskuragarri dauden soberakinen banaketa

Bat.- Soberakin garbien banaketa, aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko zenbatekoak eta dagozkien zergak kendu ondoren, Batzar Orokorrak adostuko du. Derrigorrezko Funtsek, gutxienez, ondorengo ehunekoak izango dituzte:

- a) Gutxienez %25 Derrigorrezko Erreserba Funtsera bideratuko da.
- b) Gutxienez %5 Hezkuntza eta Kooperatibako Sustapenera bideratuko da.
- c) Derrigorrezko Erreserba Funtsek kapital sozialaren %50 lortzen duenean, aurreko zenbatekoen gutxieneko ehunekoak %20 bideratuko dira Derrigorrezko Erreserba Funtsera eta %10 Hezkuntza eta Kooperatibako Sustapen Funtsera.

Bi.- Gainerako zenbatekoa derrigorrezko edo borondatezko erreserbetara zuzenduko du Batzarrak eta ez dira banagarriak izango, galerak egozteko ez bada.

Ekitaldi ekonomiko batean sortutako emaitza positiboak ezingo dira bazkideen artean banatu.

36. artikulua.- Galerak egoztea

Galerak egoztea ondorengo arauen menpe egongo da:

- a) Derrigorrezko Erreserba Funtsetik kenduko da derrigorrezko funtsetara bideratutako soberakin positiboan batez besteko ehunekoak legez emaitza positiboak lortu diren azken bost ekitalditan edo Kooperatiba sortu denean, bost urtekoa baino gutxiagokoa bada epe hori.
- b) Gainerako soberakin negatiboak borondatezko erreserbekin erabat konpentsatu ahalko dira.

- c) a) eta b) ataletan aurrez ikusitakoa aplikatu ondoren geratzen dena bazkide onuradun zuzenei eta lan bazkideei egotziko zaie Legeak ezarritako konpentsazio eta egozte irizpideekin.

VII. KAPITULUA.- ENPRESAKO KONTULARITZARI ETA LIBURUEI BURUZKOA

37. artikulua.- Dokumentazio soziala

Bat.- Kooperatiba ondorengo liburuez arduratuko da:

- a) Bazkideen Erregistro Liburua.
- b) Kapital sozialera egindako ekarpenen Erregistro Liburua.
- c) Batzar Orokorraren, Kontseilu Errektorearen eta, bere kasuan, Zaintza Batzordearen Akten Liburuak.
- d) Kontularitzako Liburuak; horien artean ezinbestekoak izango dira Inbentarioena, Urteko Kontuena eta Kontabilitateko Liburua.

Bi.- Kontularitzako oharra eta idazpenak edozein prozedura egokiren bidez egingo dira, mekanizatua izan ala ez, derrigorrezko liburuen parekide bat kronologikoki sortu ahal izateko eta hurrengo sei hilabeteetan legezkatze egokia egiteko ekitaldia itxi eta hurrengo sei hilabeteetan.

Hiru.- Kooperatibak gordeko ditu bere jarduerari dagozkion liburuak, gutunak, dokumentuak eta frogagiriak gutxienez bost urteko epean, horren inguruan xedapen legal orokorrek edo bereziek ezar dezaketena albo batera utzi gabe.

VIII. KAPITULUA. DESEGITEA

38. artikulua.- Desegitea

Bat.- Kooperatiba desegiteko kausak izango dira ondorengoak:

- a) Helburu soziala ezin betetzea.
- b) Organo sozialen jarduerarik eza edo gelditzea, edo arrazoizko kausarik gabe Kooperatibako jarduera etetea, bi kasuetan bi urtez jarraian.
- c) Bazkideen kopurua hori osatzeko beharrezko den legezko kopurua baino txikiagora murriztea, eta hori hamabi hilabetez baino gehiagoz mantentzea.
- d) Kapital soziala Estatutu hauetan ezarritako gutxieneko kapital sozialaren zenbatekoa baino gutxiagora murriztea, hamabi hilabeteko epean kopurua berriro ezarri gabe.

- e) Bat egitea edo erabateko bereizketa.
- f) Sozietatearen porrota, hori aitortu duen ebazpen judizialaren ondorio gisa.
- g) Horretarako espresuki deitutako Batzar Orokorraren akordioa.
- i) Legeak ezarritako beste edozein kausa.

Bi.- Bertaratutako botoen eta ordezkatuena artean, desagiteko akordioak gehiengo arrunt bidez hartuko dira, e) eta g) kasuetan izan ezik, horietan bi herenek osatzen duten gehiengo beharko baita, baldin eta bertako botoen kopurua eta ordezkatuena Kooperatibako boto sozial guztien hiru laurden baino txikiagoa bada.